



Lehiaren  
Euskal Agintaritza  
Autoridad Vasca  
de la Competencia

## **LEHIAREN EUSKAL AGINTARITZAREN TXOSTENA, ALBAITARIEN EUSKAL KONTSEILUAREN ESTATUTUEI BURUZKOA**

Osoko Bilkura

Maria Pilar Canedo Arrillaga andrea, lehendakaria

Natividad Goñi Urriza andrea, kidea

Rafael Iturriaga Nieva jauna, kidea

Idazkaria: Ibon Alvarez Casado jauna

Lehiaren Euskal Kontseiluaren Osoko Bilkurak, arestian aipatutako osaera duenak, Euskal Autonomia Erkidegoko Albaitari Kontseiluaren Estatutuei buruzko txosten hau igorri du 2014ko apirilaren 30eko bilkuran.

### **I. AURREKARIAK**

1. 2014ko martxoaren 12an Lehiaren Euskal Agintaritzan sartu zen Toki Erakundeekiko eta Administrazio Erregistroekiko Harremanetarako Zuzendaritzaren idazki bat, estatutu horiek lehia defendatzearen arloko arauekin bat datozen jakiteko.

### **II. LEHIAREN EUSKAL AGINTARITZAREN ESKUMENAK ETA AURRETIKO HAUSNARKETA JURIDIKOAK**

2. Otsailaren 2ko 1/2012 Legeak, Lehiaren Euskal Agintaritzari buruzkoak, 3.3. eta 10.n artikuluetan erakundeari lehia sustatzeko ematen dizkion eskumenak erabiliz egin dugu txosten hau. Horrelako eskumenen helburua da Euskadiko merkatuetan benetako lehia sustatzea (eta, ahal dela, bermatzea). Horretarako, zigorrak ez diren neurriak hartzen ditu Lehiaren Euskal Agintaritzak, eta, horrelako neurrien esparruan, besteak beste, administrazio publikoekin harremanetan jartzen da.



**3.** Gure antolamendu juridikoak Elkargo Profesionalei buruz arautzen duena Espainiako Konstituzioan oinarritzen da. Hain zuzen ere, zera xedatzen du Konstituzioko 36. artikulua: «Legeak Elkargo Profesionalei araubidea ezarri eta tituludun lanbideen jardura arautuko du. Elkargoen barne-egiturak eta jardunbideak demokratikoak izan beharko dute.»

Premisa hau izan behar dugu abiapuntu: elkargoetako lanbideetan lehia askea egon behar du, eta lehia defendatzeko 15/2007 Legea bete behar da, bere osotasunean<sup>1</sup>. Lehiari buruzko araudiarekiko mendekotasuna are gehiago nabarmendu da Erkidegoko Zerbitzuen Zuzentaraua aplikatu ostean sortu diren araudi-aldaketa berriekin<sup>2</sup>. Bai Estatuan bai EAEn, elkargo profesionalen araudia oinarritzen da Zuzentarau hori baino lehenagoko erregulazio batean: elkargo profesionalen buruzko 1974ko estatu-legea<sup>3</sup> eta 18/1997 Legea, EAEko tituludun lanbideei eta elkargo eta kontseilu profesionalen buruzkoa<sup>4</sup>.

Dena dela, une honetan Zuzentarauaren estatuko nahiz autonomia-erkidegoetako hainbat transposizio-arau daude, horiek aldaketa ugari eragin dituzte arau horietan, eta, beraz, baita elkargo profesionalen funtzionamendu-araubidean ere, batik bat Aterki (17/2009) eta Omnibus (25/2009) Legeak edo EAEko 7/2012 Legea<sup>5</sup>.

Honako hau da 18/1997 Legearen xedea: "tituludun lanbideek Euskal Autonomia Erkidegoko lurraldean aurrera daramaten jarduna eta lurralde horretan bertan diharduten elkargo eta kontseilu profesionalak arautzea. Oinarritzko legerian eta/edo arlo horretako legerian jartzen duena ere kontuan hartu beharko da".

Zioen azalpenak dioenez, Euskal Autonomia Erkidegoak bakarrik dituen eskumenak erabiliz egindakoa da araudia, Espainiako Konstituzioko 139. artikuluari kalte egin gabe betiere. Hain zuzen ere, zera xedatzen da artikuluko horretan: «Ezin du inolako agintarik neurririk hartu, baldin eta neurri horiek, zuzenean edo zeharka, oztopatzen badute Espainiako lurralde osoan gizabanakoek askatasunez zirkulatzea eta bertan ezartzea, eta ondasunek askatasunez zirkulatzea».

---

<sup>1</sup> 15/2007 Legea, uztailaren 3koa, lehia defendatzekoa.

<sup>2</sup> 2006/123/EE Zuzentaraua, 2006ko abenduaren 12koa, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, barne-merkatuko zerbitzuei buruzkoa.

<sup>3</sup> 2/1974 Legea, otsailaren 13koa, elkargo profesionalen buruzkoa. 7/1997 Legea, apirilaren 14koa, lurra liberalizatzeko neurriak ematekoa eta elkargo profesionalen buruzkoa.

<sup>4</sup> 18/1997 euskal Legea, azaroaren 21koa, tituludun lanbideen, eta elkargo eta kontseilu profesionalen jarduna arautzen duena.

<sup>5</sup> 17/2009 Legea, azaroaren 23koa, zerbitzu-jardueretara oztoporik gabe iristeari eta zerbitzuetan oztoporik gabe jarduteari buruzkoa (Aterki Legea); abenduaren 22ko 25/2009 Legea, zerbitzu-jardueretan aske sartzeari eta aritzeari buruzko Legeari egokitzeko zenbait lege aldatzen dituena (Omnibus Legea); eta Eusko Legebiltzarraren 7/2012 Legea, apirilaren 23koa, barne-merkatuko zerbitzuei buruzko zuzentaraua egokitze aldera zenbait lege aldatzen dituena, eta tituludun lanbideei eta elkargo eta kontseilu profesionalen buruzko 18/1997 euskal Legea aldatzen duena.



4. Kontseilu profesionalak —elkargo profesionalak ez bezala— ez dira Konstituzioan aipatzen. Dena dela, araudi bera bete behar dute.

Elkargo profesionalei buruzko Legearen hirugarren xedapen gehigarriaren 2. paragrafoan honako hau jasotzen da, Omnibus Legearen arabera: «elkargodun korporazioak izango dira Elkargoen Kontseilu Nagusia edo Kontseilu Gorena, Estatuko Elkargoak, Elkargoen Kontseilu Autonomikoak eta Elkargo Profesionalak».

18/1997 Legeak kontseiluak arautzen ditu 41. artikuluan: "Lanbideren batek elkargo-antolaketa duen guztietan izango da kontseilu profesionala —bat baino ez— osatzeko aukera. Horretarako, dagozkion elkargo profesionalak batu beharko dira.

Bigarren paragrafoak dioenez, "Kontseilu profesionalek nortasun juridiko propioa eta jarduteko gaitasun osoa dute, eta beren helburua tituludun lanbidearen ordezkari gorenak izatea eta defentsa egitea da, betiere, gizartearen interes eta premia orokorrekin bat eta lurralde-esparrutzat Autonomia Erkidegoa hartuta".

5. Elkargo profesionalek hitzez hitz bete behar dituzte Estatutuak edo Kontseiluaren gainerako arauak, eta hori beren jardun osora zabalduko da. Hori dela eta, Estatutuen testua gorabehera, elkargoek ezin dute onartu lehia mugatzen duen erabaki edo gomendiorik, eta ezin dute ezarri horrelako betebeharrak edo eskakizunik, lehiaren defentsarako legeria urra bailezakete<sup>6</sup>.

### **III. LEHIARI BURUZKO ARAUDIAREN GAINEKO HAUSNARKETAK**

#### **A. Kontseiluaren berezko eginkizunak.**

6. 18/1997 Legearen 41.2 artikulua dioenez, "Kontseilu profesionalek nortasun juridiko propioa eta jarduteko gaitasun osoa dute, eta beren helburua tituludun lanbidearen ordezkari gorenak izatea eta defentsa egitea da, betiere, gizartearen interes eta premia orokorrekin bat eta lurralde-esparrutzat Euskal Autonomia Erkidegoa hartuta".

Lege beraren 42. artikulua arabera, kontseilu profesionalen berezko eginkizunak dira:

- a) Lanbidearen arau deontologiko komunak jaso eta sortzea.

---

<sup>6</sup> LEHIAREN BATZORDE NAZIONALA, Informe sobre los Colegios Profesionales tras la transposición de la Directiva de Servicios, Madrid, 2011. 22. orria eta hurrengoak.



- b) Bere estatutuak onartu eta aldatzea eta, atal honetako bigarren zenbakian xedatutakoarekin bat, lanbidearen jarduna arautzea.
- c) Elkargo profesionalen arteko auziak konpontzea arbitraiaren bidez.
- d) Elkargoen ekintzen aurkako errekurtsioak erabakitzea.
- e) Diziplina-agintea erabiltzea, 19.2 atalaren arabera.
- f) Arau-egitasmoak direla-eta Gobernuak eskatzen dizkien irizpenak egitea, 54. artikuluaaren arabera.
- g) Kontseiluaren aurrekontuak onartzea eta elkargoek gastuetan izan behar duten partaidetza hein berekoa izan dadin, partaidetza hori zuzen zehaztea.
- h) Jarduera profesionala legezkoa eta egokia den eta elkargo profesionalen funtzionamendua zuzena den begiratzea, helburua herritarrekiko errespetua eta herritarren eskubideak zaintzea izanik. Elkargoen funtzionamenduak eragindako kexak konpontzea.
- i) Hutsuneak betetzeko asmoarekin betiere, kasuan kasuko lanbidearekin zerikusia duten erakundeak, zerbitzuak eta jarduerak sustatu, sortu eta antolatzea kultura bultzatzeko, gizarte- eta osasun-laguntza emateko eta lankidetzan indartzeko. Era berean, lanbiderako komenigarriak diren itun eta akordioak ere egingo dituzte administrazioarekin eta dagozkion erakunde eta entitateekin.
- j) Beste edozein legeriak agintzen dizkienak.

## 7. Euskal Autonomia Erkidegoko Albaitari Kontseiluak 4. artikuluan dakar gai hori.

**1. artikulua.-** Euskal Autonomia Erkidegoko Albaitari Kontseilua zuzenbide publikoko korporazioa da, EAEko tituludun lanbideei eta elkargo eta kontseilu profesionalei buruzko azaroaren 21eko 18/1997 Legearen babesa du, izaera juridikoa eta jarduteko ahalmen osoa du, eta bere xedea da Araba, Gipuzkoa eta Bizkaiko Albaitari Elkargo Ofizialen ordezkari izatea, koordinatzea eta lankidetzan jardutean, elkargo horien eta gizartearen interes eta premia orokorrei jarraituz.

**4. artikulua.-** Berezko eginkizunak.

1.- EAEko Albaitari Kontseiluari dagokio, bere esparruaren baitan, azaroaren 21eko 18/1997 Legearen 42. artikulua ekoizten dizkion eginkizunak burutzea.

2.- Eskumen orokorraz gain, oinarrizko eginkizun hauek ditu:

1. Albaitarien ordezkari izatea Euskal Autonomia Erkidegoan nahiz Espainiako Albaitari Elkargoen Kontseilu Nagusiaren aurrean, albaitarien hiru euskal elkargoek eragiten dieten gaietan.

2. Albaitaritzaren ordezkari eta defentsa egitea administrazio, erakunde, auzitegi eta partikularren aurrean —elkargo bakoitzak berezko dituen eskumenez gain—, Kontseiluaren interes profesionalei eta helburuei eragiten dieten auzietan parte izatea, eta ordezkari eta defentsa egiteko eskumenak eman ahal izatea.

3. Legeriaren eta bere eskumenen barruan albaitaritzara arautzea, ordezkari dituen Albaitari Elkargoekin koordinaturik eta berezkoa duten autonomiari kalterik egin gabe.

4. Lanbideak animalia-ekoizpenak sustatzen dituela zaintzea, animalien ongizatea, ingurumena eta osasun publikoa errespetatuz, eta helburuei horiei begira lankidetzan



jardun gainerako osasun-lanbideekin, arlo horretako beste lanbideekin eta botere publikoekin.

5. Administrazio publikoen aholku-batzorde eta -organoetan parte hartzea, haiek hala eskatzean edo legeek hala aurreikusten dutenean.

6. Gobernuaren arau-proiektuei buruz informatzea, 18/97 Legearen 54. artikuluari jarraituz.

7. Albaitaritzaren jarduna garatzeko eta hobetzeko araei, erreformei edo neurriei buruzko proposamenak egitea.

8. Administrazioari eta gainerako erakundeei laguntzea denen interesak lortzen, albaitariak lanbide horren eskumenen esparruan egotea, eta hori lortzeko hitzarmenak, kontratuak eta itunak egitea.

9. Autonomia Erkidegoko Administrazioari jakinaraztea jarduera irregularrak —legeria urratzen dutenak edo Albaitaritzako Deontologiaren oinarriak betetzen ez dituztenak—, albaitaritzaren eskumenen baitan.

10. EAEko Albaitari Elkargoen jarduna koordinatzea, eta elkargoen arteko gatazketan arbitraia egitea.

11. Elkargoek Kontseiluaren ebazpenak betetzeko neurriak hartzea, bere eskumenen barruan emanak.

12. Albaitaritzako arau deontologikoak biltzea, lantzea eta haiek betetzen direla zaintzea.

13. Elkargoek agindutako egintzen aurkako errekursoak erabakitzea.

14. Diziplina-ahala edukitzea Elkargoetako eta Kontseiluko gobernu-organoetako kideekin, 18/97 Legeko 19.3 artikuluari jarraituz.

15. Bere estatutuak onartzea eta aldatzea, 18/97 Legeko 45. artikulua arabera.

16. Bere aurrekontua onartzea eta, elkargokide-kopuruaren arabera, elkargoek Kontseiluaren gastuetan duten parte-hartzea finkatzea.

17. Elkargoen gobernu-organoetarako bozketa-deialdiak egiten eta jarraipena egiten laguntzea, bozketa-arauak betetzen direla zaintzea eta egon daitezkeen errekursoak erabakitzea.

18. Elkargoen funtzionamenduari buruzko kexak argitzea.

19. Elkargoen osagarri moduan, lanbidearentzat interesekoak diren jarduerak eta zerbitzuak sustatzea, sortzea eta antolatzea; hau da, albaitarien etengabeko prestakuntza bilatzen dutenak eta Elkargoek beren helburuak lortzeko balio dutenak.

20. Administrazioak emandako betekizunak egitea, 18/97 Legearen 43. artikuluari jarraituz.

21. Lankidetzeta-hitzarmenak ezartzea Espainiako Albaitari Kontseilu Nagusiarekin, beste autonomietako Albaitari Kontseiluekin eta albaitaritza ordezkatzen duten erakundeekin, EAEko eta Estatuko esparrutik kanpora.

22. Albaitaritzarentzat onuragarriak edo interesgarriak diren eginkizunak, Kontseiluaren helburuak lortzeko modua ematen dutenak, eta legeek agindu edo eskuordetzen dizkiotenak.



8. 4. artikulua gainditu egiten ditu 18/1997 Legeak elkargo profesionalen kontseiluei ematen dizkien funtzioak, legera mugatu behar du eta, beraz, 2. atala eta bere 22. azpiatalak erabat ezabatu beharko lirateke, 1. atala mantenduz (“Euskal Autonomia Erkidegoko Albaitari Kontseiluari dagozkio, bere lurraldearen barruan, azaroaren 21eko 18/1997 Legearen 42. artikuluko eginkizunak”), edo, Kontseiluak eginkizun guztiak zehaztu nahi baditu, 42. artikulua horren hamar eskumenak aipatzea [a) azpiataletik j) azpiatalera], Legeak ematen dizkien baino eskumen gehiago hartu gabe estatutu bidez.

## B. Elkargo bateko kide izan beharra

9. Auzitegi Konstituzionalak elkargoei buruzko arauketa konstituzionala jasotzen duen Espainiako Konstituzioaren 36. artikulua interpretatu eta honako hau finkatu du: «elkargo bateko kide izan beharra interes publiko bati erantzuteko beharra dagoenean bakarrik izango da konstituzionalki legezkoa»<sup>7</sup>. Horrenbestez, Auzitegi Konstituzionalak legegilea gaitzen du, hark, egokitzat jotzen duenean, elkargo profesionaletan elkartzeko askatasunak eta lanbide-aukeraketa mugatu ditzan —batik bat elkargo bateko kide egin beharra finkatuz—, betiere lanbide jakin batzuekin loturiko interes publikoek hala justifikatzen dutenean<sup>8</sup>.

*Aterki Legeak*, hau da, zerbitzuei buruzko 2006/123 Zuzentaraua aldatzen duenak, elkargo bateko kide egin beharra baimentzen du, salbuespen gisa, honako kasu hauetan:

- ordena publiko, segurtasun publiko, osasun publiko edo ingurumena babesteko arazoak direla eta, hala justifikatuta dagoenean. (12. artikulua) - eskakizuna diskriminatzailea ez denean (hau da, zuzenean nahiz zeharka, hura diskriminatzailea ez denean, eskumena duen agintaritzaren kokapenaren edo nazionalitatearen arabera). (5. artikulua)
- beharrezkoa denean (hau da, interes orokorreko premiazko neurriren batek justifikatzen duenean). (5. artikulua) - haren helburua lortzeko egokia denean (hau da, nahi den helburua lortu ahal izateko elkargo bateko kide egitea tresnarik onena denean, eta, beraz, emaitza bera lortzea ahalbidetuko duen neurri hoberik ez dagoenean). (5. art.)

---

<sup>7</sup> Auzitegi Konstituzionalaren 89/1989 Epaia, maiatzaren 11koa. Zentzu berean, Auzitegi Konstituzionalaren abenduaren 15eko 330/1994 Epaia kontsulta daiteke, beren borondatez atxikitzea ahalbidetzen duten elkargoak baimentzen dituena. Era berean, Auzitegi Konstituzionalaren apirilaren 23ko 76/2003 Epaia dugu, toki-administrazioako idazkarien, kontu-hartzaileen eta diruzainen elkargoei dagokienez elkargo bateko kide izan beharra konstituzioaren aurkakotzat jotzen duena, lanbidearen antolaketarekin lotuta konstituzionalki garrantzitsuak diren helburu edo eginkizun publikoak garatzen ez dituztelako, hain zuzen.

<sup>8</sup> Ikus, gure mugetatik kanpo, Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren 1983ko otsailaren 10eko Epaia. *As. Le Compte, Van Leuven eta De Meyere c. Belgika*, edo 1993ko ekainaren 30eko epaia, *Sigurdur A. Sigurjónsson c. Islandia*, A seriea, 264. zenbakia; bertan, neurritz kanpokotzat jotzen da taxi-gidari bati taxi-gidarien erakunde batera atxikitzeko legezko betebeharra.



- araubide hori zehazten duen Legean behar bezala arrazoitzen denean. (5. artikulua).

Euskal Autonomia Erkidegoan, eta azaroaren 21eko 18/1997 Legearen 30.1 artikuluari jarraiki, elkargo profesional batean txertatu beharra eskatu ahal izango da jarduera jakin batean jarduteko. Xedapen horren arabera, «elkargoetako lanbideetan jarduteko ezinbesteko baldintza da dagokion elkargoko kide izatea, Legeak horrela jasotzen duenean<sup>9</sup>. Horrenbestez, elkargo bateko kide izan beharra lege mailako arauren batean jasotzen denean bakarrik jo ahal izango da egokitzat.

Gainera, elkargo bateko kide egin beharra lege mailako arauren batean jaso beharko da hark lehia defendatzeko Legearen 4. artikulua babesa izan dezan<sup>10</sup>.

Oro har, *Omnibus* Legeak sarbidearen eta jardun profesionalaren mugak ezabatu zituen, baina etorkizuneko araudi baten esku utzi zuen jarduerarreserben eta elkargo bateko kide egin beharraren aldaketa<sup>11</sup>.

Une honetan, eta elkargo profesionalari buruzko Legearen 3.2 artikulua arabera, Estatuko lege batek hala ezartzen duenean bakarrik eskatu ahal izango da elkargo bateko kide izatea lanbide batean jarduteko. Dena den, elkargo bateko kide izatea nahitaezkoa den lanbideak lege arautzen ez diren bitartean, eta *Omnibus* Legearen laugarren xedapen iragankorrari jarraiki, hura indarrean sartu zen unean indarrean zirenak finkatu dira. Horregatik, elkargo bateko kide izatea beharrezkoa den egoerak mantendu dira, arauan ezarrita ez egon arren, eta, beraz, maila egokia ez izan arren.

**10.** Azaroaren 21eko 44/2003 Legeak, osasun arloko lanbideen antolamenduari buruzkoak, esan gabe adierazten du osasun arloko lanbideak elkargo bateko kide izan beharra, 2.4. artikulua arabera: “Norberaren nahiz besteren

---

<sup>9</sup> Auzitegi Konstituzionalaren 3/2013 Epaia, 2013ko urtarrilaren 17koa (2013ko otsailaren 12ko 37. zenbakiko BOE), Andaluziako elkargo profesionalari buruzkoa; haren arabera, Estatuaren berariazko eskumena da elkargo bateko kide izan beharra edo salbuespenak finkatzea. Zentzu berean agertzen dira Auzitegi Konstituzionalaren 46/2013 Epaia (Extremadurako legeari dagokionez) eta Auzitegi Konstituzionalaren 50/2013 Epaia (Asturiasko legeari dagokionez).

<sup>10</sup> Aipatutako 4. artikulua horretako “Legeak salbuetsitako jokaerak” epigrafeak honako hau dio: “Lehiaren defentsaren arloko xedapen komunitarioen behin-behineko aplikazioaren kalterik gabe, kapitulu honetako debekuak ez zaizkio aplikatuko lege baten aplikazioaren ondorio diren jokaerei.” Bestalde, honela jarraitzen du artikulua: “Kapitulu honetan aipatzen diren debekuak lehia murrizten duten egoera jakin batzuei ezarriko zaizkie, hau da, administrazioaren beste ahalmen batzuk gauzatzearen ondorio direnei, edo aginte publikoen edo enpresa publikoen jardueraren ondorio direnei, eta lege-babesik gabe burutzen badira”.

<sup>11</sup> Honela dio arau horren laugarren xedapen iragankorrak: “Hamabi hilabeteko epean, Gobernuak lege-proiektu bat igorriko die Gorte Nagusiei, eta bertan, elkargo bateko kide izatea nahitaezkoa den lanbideak zehaztuko dira, baina lege-proiektu hori ez da oraindik igorri. Proiektu horretan elkargo bateko kide izan beharraren jarraitutasuna aurreikusi beharko da hura jardun profesionalaren kontrolerako tresna eraginkorra den kasuetan, horrela, zerbitzuen hartzaileak hobeto babesteko; baita interes publiko bereziko gaiak modu larrian edo oso larrian kaltetu daitezkeen jardueretan ere, adibidez pertsona fisikoaren osasunaren babesa eta osotasun fisikoa edo segurtasun pertsonala edo juridikoa kaltetu daitezkeen kasuetan”.



kontuko osasun arloko lanbideetan horretan aritzeko gaitasuna ematen duen titulu ofiziala eduki behar da edo, bestela, 2.4 artikuluan aurreikusitako ziurtagiria, eta kontuan hartuko da bertan, gainerako lege aplikagarrietan eta elkargo profesionalen arauetan aurreikusitakoa”<sup>12</sup>.

Ondoren, otsailaren 22ko 126/2013 Errege Dekretuaren bidez onartutako Espainiako Albaitari Elkargoaren Estatutu Orokorrek honela diote:

“1. artikulua. Albaitari Elkargoaren izaera juridikoa.

(...)

4. Otsailaren 13ko 2/1974 Legearen 3.2 artikulua araberan, estatuko lege batek hala agindutakoan, Elkargo Profesionalek derrigorrez bildu behar dituzte albaitaritzaren edozein modalitatetan ari diren langileak, nahiz beren kontura nahiz erakunde pribatuetan, titulua edukitzea eskatzen duten mota bereko jardura guztietan, edo titulazioaren baldintza dagoen guztietan. Albaitari-titulua eduki eta lan horretan ari ez direnek ere elkargo bateko kide izatea eskatu ahal dute, nahi izanez gero.

62. artikulua. Lan-jarduna

1. Albaitaritzako Espainiako Lizentzia edo Gradu titulua duenak, edo atzerriko titulua izan eta Espainiako eta erkidegoko araudiari jarraituz Espainiako administrazio eskudunak Espainian albaitaritzan aritzeko homologatu edo ontzat eman eta Estatutu hauetako baldintzak betetzen dituenak eskubidea du dagokion Albaitari Elkargo Ofizialean onartua izateko.

2. Albaitaritzan jarduteko aurrebaldintza ezinbestekoa da dena delako Elkargo Profesionaleko kide izatea, hori derrigorrezkoa denean. Izena emateko edo kide izateko kuotak ezingo ditu gainditu izen-ematea tramitatzearen kostuak. Albaitari Elkargo Profesionalek behar adina baliabide izango dituzte eskatzaileek kide izate hori bide telematikoz tramitatu ahal izateko, Elkargo Profesionalen estatu-legearen 10. artikulua araberan”<sup>13</sup>.

CNC zenaren araberan, lege-aldaketetara moldatuz onartutako elkargoen estatutuek ez lukete betebeharrak aipatu behar, edo gutxienez aipatu beharko lukete legearekin bat ez datorren arau batean agertzen dela, eta iragankorra dela betebeharrak hori lege-mailako arau batean sartu arte<sup>14</sup>. Estatuko lege batek elkargo bateko kide izan beharra ezartzen ez duen bitartean, omnibus legean ezarritakoa urratuz onartutako xedeak legez kontrakoak lirateke<sup>15</sup>.

**11.** EAeko Albaitari Kontseiluek elkargo bateko kide izan beharrik arautzen ez duten arren, aipatu beharko litzateke, gutxienez, lanbideko ordezkari-ahalmena (1. art.) iragankorra dela, elkargo bateko kide izan beharrik ez dagoen bitartean, baina Lehiaren Euskal Kontseilu hau ohartzen da ezen,

<sup>12</sup> BOE, 280. zk., azaroaren 22koa.

<sup>13</sup> BOE, 59. zk., martxoaren 9koa.

<sup>14</sup> CNC, *op. cit.*, 42. or.

<sup>15</sup> CNC, *op. cit.*, 44. or.





osasun arloko lanbide bat denez, seguru asko elkargo bateko kide izan beharra egongo dela<sup>16</sup>.

### C. Kontseiluak bere barruko Elkargoetako kideekin bidegabe jokatzeari

**12.** Lehia bidegabeari buruzko urtarrilaren 10eko 3/1991 Legearen 15. artikulua xedatzen duenez, «arauak urratzea» lehia bidegabea izan daiteke. 18/1997 Legearen 42. artikulua ez du Kontseiluen eginkizunen artean sartzen agiriak edo irizpenak ematea edo erakundeek edo hirugarren pertsonak eskatutako zerbitzuak egitea.

**13.** EAEko Albaitari Kontseiluen 24.3 artikulua lehia bidegabea eragin lezake.

**24. artikulua.-** Honako hauek izango dira Kontseiluaren baliabide ekonomikoak: (...)

3.- Erakundeek edo hirugarren pertsonak eskatutako mota guztietako agiriak eta irizpenak egitearen edo zerbitzuak ematearen zergak.

**14.** 24.3 artikulua Kontseiluaren finantzazio-iturri posibletzat aipatzen du erakundeek edo hirugarren pertsonak eskatutako mota guztietako agiriak eta irizpenak egitearen edo zerbitzuak ematearen zergak jasotzea. Beraz, izaera profesionaleko lanak dira eta haren barruko Elkargoetako kideen ardura izan behar dute, Kontseiluak ez baitu horretarako titulurik. Kontseiluak elkargoetako kide horiei lehia egitea izango litzateke. Izan ere, bi ondorio izan ditzake Kontseiluak albaitarien berezko lan profesionalak egiteak:

- Kontseilua eragile ekonomiko bat litzateke, zerbitzuak emateko erreferentziatzko eskaintzailea, eta profesionalak merkatuan zuzenean parte hartu ahal izateari kalte egin.
- Kontseiluarentzat mesedegarria eta Elkargoetako kideentzat kaltegarria litzateke, eta horrek elkargoetako kideen lehia zapuztuko luke. Sistema horren eraginez, zerbitzu jakin batzuk barnean banatuko lirateke, Kontseiluak negozioa «beretzat hartuz».

Ondorioz, ezabatu egin behar da 24.3 artikulua hori.

## IV. ONDORIOAK

**Lehena.-** Elkargoetako lanbideetan lehia askea egon behar du, eta Lehia defendatzeari buruzko uztailaren 3ko 15/2007 Legea bete behar da, bere osotasunean.

<sup>16</sup> Honela agertzen da Espainiako Albaitari Elkargoaren Estatutu Nagusien 3. artikuluan ("Albaitari Elkargoaren Helburuak"):

"Albaitari Elkargoaren helburuak dira:

1. Bere eskumenen barruan, albaitaritzaren jarduna arautzea, haren ordezkaritza instituzional eskusiboa edukitzea elkargo bateko kide izan beharra dagoenean (...)"



**Bigarrena.-** Kontseilu profesionalek egiten duten tituludun lanbidearen ordezkariak eta defentsak bere oinarrian izan behar du, bere barruko Elkargoen interesa defenditzea ez ezik, bere kideek emandako zerbitzuek kontsumitzaileen eta erabiltzaileen interesak babestea, betiere gizartearen interes eta premia orokorrekin bat.

**Hirugarrena.-** Lehiaren Euskal Agintaritzak, txosten honen bidez, aipatutako 4. artikulua aldatu eta 24.3 artikulua ezabatu beharra planteatzen du.

Bilbo, 2014ko apirilaren 30a

**LEHENDAKARIA**

**MARIA PILAR CANEDO ARRILLAGA**

**IDAZKARIA**

**IBON ALVAREZ CASADO**

**KONTSEILUKIDEA**

**NATIVIDAD GOÑI URRIZA**

**KONTSEILUKIDEA**

**RAFAEL ITURRIAGA NIEVA**